

Komikia

Replika

Arabar lautadako uzta berria

Replika doako komiki-aldizkariaren lehenengo zenbakia kalean da jada. Gasteizen sortua –non bestela?–, ahalik eta publiko zabalarengana iristea eta autore gazteei ateak zabaltzea du helburu. Aurreneko 4.000 aleak aitaren batean desagertu dira.

JUAN LUIS ETA MIKEL Diaz de Corcuera anaia gasteiztarrak eta Juan Luisen emazte Nuria Arteaga dira proiektuaren sustatzaileak. Mikel aldizkariko zuzendaria da, Juan Luis marketin arduraduna eta Nuria erredakzio-kontseiluko kidea –Iñigo Yarza eta Lorena Martinezekin batera–. “Ikusten genuen bazegoela hutsune bat, ez soilik Araban, Espainiako Estatu osoan baizik”, esan digu ilustrazioaren munduak aspaldi harrapatuta bizi den Juan Luisek. Frantzian komiki-aldizkariak osasun hobea daukatela dio, eta hango autoreen lanak ere argitaratu nahi dituztela. Gasteiz eta Frantziako Angulema hiria senidetuta daude. Han egiten da Europako komiki azokarik inportanteena, eta beraiekin kolaboratzea ederra litzatekeela adierazi digu Diaz de Corcuera: “Hemengo egileen lanak frantsesera itzuli eta Pirinioez gaindi zabaltzea gustatuko litzaiguke”. Lehen zenbakian euskarazko eta gaztelaniazko komikiak plazaratu dituzte.

Replika aldizkariaren 4.000 aleak Araban banatu dituzte, ia denak Gasteizen. Tabernetan eta estankoetan laga dituzte alerik gehienak, eta di-da

JON TORNER

desagertu omen dira. Banaketa-esparrua handitu nahi dutela dio Juan Luisek, baina zeregin hori –oraingoz euren esku dagoenez, gauzek zein norabide hartuko duten ikusi arte hala jarraituko dutela. Printzipioz, urtean lau zenbaki kale-ratuko dituzte.

Doakoa izatea apustu arriskutsuegia ez ote den galdetu diogu Diaz de Corcuera. “Tira, doakoa... hori erlatiboa da. Publizitateari esker egin dugu aurrera, bestela... Ez dugu uste jendeak komiki aldizkari batengatik ordainduko lukeenik”, erantzun digu. “*Replika* edonork irakurtzea desio dugu, Gaztetxeok, 50 urteko enpresariak... eta badirudi funtzionatzen duela. Jendeak komikiak irakurri nahi ditu. Ez dakit zergatik, baina arabarrek betidanik izan dituzte gogoko komikiak. Mercedes bat gidatzen duen trajedun batek eskue-tatik hartu eta esaten dizu: ‘Milesker, emango diot begiratu bat’. Apur bat harritzen zaitu”.

Internet eta autoedizioa

Replikak sarean ere badu bere lekutxoak: www.myspace.com/replikacomic. Internet artistak harremanetan jartzeko oso tresna erabilgarria dela dio Diaz de Corcuera, eta marrazkilari ugari zuzendu zaizkiela MySpace bidez.

Bestelako abantailak ere eskaintzen ditu Internetek –informatikak-. Posible da adibidez norberak aldizkari bat autoeditatzea. “Marrazkiak lehen bezalakoak balira, balioko lukete... baina hain medio gutxirekin nekez kaleratuko genuke aldizkari bat”, esan digu Diaz de Corcuera. “Marrazteko erari dagokionez ez da hainbesteko aldaketarik izan. Ordenagailuz dozena erdik marrazten du. Komikigileak apur bat arraroak dira, musikariak bezala, baina kutreagoak. Photoshop eta freehand moduko programak zuri-beltzeko marrazkiak koloreztatzeko erabiltzen dituzte”. ■



Ezkerrean *Replika* aldizkariaren lehen zenbakiaren azala. 4.000 ale banatu dituzte, ia denak Gasteizen. Harrera ona izaten ari da aldizkaria.

1. zenbakiko komikigileak

Pernan Goñi, Juan Luis eta Mikel Diaz de Corcuera, Lilla & Maclet, Gerardo Armesto, Iñigo Yarza, Iratxe Ortiz de Zarate, Susana Morcillo, Mauro Entrialgo, Iñaki Cerrajería, Alfonso Tamayo eta Mario Lopez.